

KAPITAINAK BEHAR DIRA



Industria birmoldaketari eutsi zion enpresaburu belaunaldia ordezkatzeko unea iritsi da; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 55.000 familia enpresa daude egoera horretan, eta horiei laguntza emateko ekimenak ugaritzen hasi dira.

|| *Ivan Santamaria*

Kapitaina prest dago barkuarekin batera hondoratzeko. Itsasoko mitologiak ongi irudikatzen du lemazaiaren eta ontziaren arteko harreman pertsonala, estua. Familia enpresetan, batez ere txiki eta ertainetan, jabeak betetzen du kapitainaren rola. Norabide egokian negozioa zuzendu, merkatuaren olatu batzuetan zakarrekin lehiatu, eta eskufaiako langileen ardura du. Baina kapitainari iristen zaio agur esateko ordua. Eta asko dira jabearekin batera hondoratzen diren konpainiak.

Ikei aholkularitzak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberen enkarguz egindako ikerketa baten arabera, soilik familia enpresen %30 iristen dira bigarren belaunaldira, eta horietatik erdiak baino ez, %15, hirugarrenera. Edozein enpresa akabatzen duten faktoreak ez ezik —lehiari ezin eustea eta merkatua agortzea, esaterako—, familia enpresek berezkoak dituzten arazok gainditu behar dituzte. Irauteko traba nagusia, hain zuzen ere,

belaunaldi txandaketaren planifikazio falta da, agintariaren ordezkapen egokia. Ganberen txostenak dio Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familia enpresen bi herenek baino gehiagok ez daukatela oraindik definiturik ondorengotza, kinka horri aurre egin behariko dioten arren.

Erronka sendi batzuen negozioaren iraupenetik haratago doa, gisa horretako enpresek ekonomian duten pisua aintzat hartuz gero. Hala, soilik Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 115.000 familia enpresa daude. Ganberen arabera, %45ek konpainiako buruzagiaren ordezkapena erabaki behariko dute datozen urteotan. Industria Sustatzeko eta Eraldatzeko Baltzuak, SPRIk, hamarkada batean 55.000 enpresak prozesu horri heldu behariko diotela kalkulatu du. Eta, garrantzitsuena, horietan 200.000 lanpostu jokoan daude. Nafarroan ez dago antzeko daturik, baina 2004. urtean ganberak argitaratutako datuen arabera, familia enpresek 182.000 langile dituzte, orotara.

Enpleguarekin batera, jarduera gehiena biltzen duten konpainiak dira. Fenomenoa ez da bakarrik Euskal Herrikoa, mundu osoan

errepikatzen den eskema delako. AEBetan, esaterako, barne produktu gordinaren (BPG) %40 eta %60 bitartean ekoizten dute, eta enpleguaren erdia. Europako Batasunean, berriz, BPGren %60 dira: 17 milioi enpresa eta 100 milioi langile (%70). EAEn aberastunaren %70 eta %80 bitartean sortzen dute, eta lanpostuen %65.

Enpresen herenak soilik iristen dira bigarren belaunaldira, eta erdiak, %15, hirugarrenera

Japoniako Kingo Gumi enpresak 1.400 urte iraun zituen, harik eta 2006an porrot egin zuen arte

Oro har, familia negozioak enpresa ertain eta txikiak direlako ustea oso zabaldua dago. Gehienak horrelakoak dira, baina badira sendiek agindutako multinazionalak ere. European, esaterako, ehun enpresa handien artean laurdenak familiakoenak dira. Fiat, Carrefour, Novartis, Bosch eta Michelin dira horien artean ezagunenak.

Sarritan itsasoz bestaldeko adibide bat aipatu ohi da: munduko talderik handiena, Wal-Mart, Walton familiaren eskuetan dago, eta urtero 244.000 milioi dolarren sarrerak ditu. Asian mila urte baino gehiago dituzten negozioak ere badira. Kongo Gumi Japoniako erakuntza enpresak 1.400 urte eta 40 belaunaldi gainditu zituen, 2006an porrot egin arte.

Europako Batasunak aditu talde bat eratu du, familia enpresen egoerari buruz gogoeta egiteko. Erroren garrantzia aitortu du Bruselak: populazioa gero eta zaharragoa da, eta, ondorioz, enpresen jabetza eskualdatzeko prozesuak biderkatuko dira.

Trabak eskualdatzeari
EBko enpresaburuen herenak datozen hamar urteetan erretiratu dira. Horrek, aurreikuspenek diotenez, urtero 690.000 enpresa txiki eta ertainetan eta 2,8 milioi enplegutuan eragina izango du. Eu-

(HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZENDU)

egitura

2008ko martxoaren 30a
198. zenbakia
ekonomia@berria.info